

Noa Lorenzo Penis, Izaro García Izaga, Eider Itarte Lorente eta Naomi Echeverría Chenche gara, Durangoko Ibaizabal Ikastolako Gizarteratzeko goi-mailako zikloko ikasleak.

Munduko Ahotsak izeneko elkarteak sortu dugu kultura ezberdinei espazio seguru bat eskaintzeko. Aisialdi jarduerekin guztiz lotuta dagoen zerbitzua izango da, haien bizipenak, esperientziak eta ohiturak partekatzeko eta beste kulturetatik ikasteko aukera zabalduz. Izan ere, gizartean nabaria da etorkinek izaten dituzten zailtasunak bizi-kalitatea bermatzerako orduan. Hortaz, oztopo ezberdinekin aurkitzen dira, hala nola, komunikazioaren oztopoa, zailtasun ekonomikoak, aldaketa soziokulturalak, etab. Ekintza ezberdinen bidez, besteengandik ikasi eta harremanak sortzeko aukera aberasgarria bultzatzen da. Azkenik, enpresaren erdigunean kulturazintasunaren garrantzia bermatzen da une oro.